

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

KLIKASI plataformaren bezero nagusiak bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleak eta irakasleak dira. Eguneroko ikaskuntza antolatzeko eta eduki fidagarriak partekatzeko beharra duten hezkuntza-komunitateko kideak direlako. Ikasleek euskarazko apunte egiaztatuak eta ikasteko metodo erabilgarriak behar dituzte, eta irakasleek, berriz, baliabide didaktikoak modu errazean partekatu eta haien betebeharrak ondo antolatzeko formatu bat.

1. Irakasleak - Ikastetxe publiko zein itunpekoak

Irakasleak KLIKASIren bezero nagusietako bat dira, eduki didaktiko fidagarriak partekatzeko eta beren lana modu eraginkorragoan antolatzeko beharra dutelako. Plataformak aukera ematen die apunteak igotzeko, materialak antolatzeko eta beste irakasleekin baliabideak partekatzeko, betiere metodologia bateratua eta euskarazko edukiak lehenetsiz. Horrek denbora aurrezte eta irakaskuntza-prozesuaren kalitatea hobetzea ahalbidetzen du, bai ikastetxe publikoetan bai itunpekoetan.

2. Ikasleak - Ikastetxe publiko zein itunpekoak

Bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleak dira KLIKASIren erabiltzaile nagusiak. Haien beharrik handienak dira ikasketa antolatzea, apunte fidagarriak eskuratzea eta ikasteko metodo eraginkorrak aurkitzea, bereziki euskaraz. KLIKASIk baliabide guztiak gune bakarrean eskaintzen ditu, ikasleen ikaskuntza errazteko eta autonomia sustatzeko, bai ikastetxe publikoetan bai itunpekoetan.

3. Banaka ikasten duten ikasleak - Ikasle nomadak

Banaka ikasten duten ikasleak, ikasle nomadak deitu ditugunak, ere KLIKASIren merkatu-segmentu garrantzitsua dira; adibidez, selektibitatea prestatzen ari direnak edo etxetik ikasten dutenak. Ikasle hauek plataforma tarifa eskuragarri baten bidez erabiliko dute, eta euskarazko eduki egiaztatuak, antolaketa-tresnak eta ikasteko baliabideak eskuratzeko aukera izango dute, ikastetxe batean matrikulatuta egon gabe ere.